

# 06 AURREKONTUA ETA BALIABIDEAK

Lankidetzaz-proiektu batek martxan dagoen energia adierazten du. Hainbat pertsonak beren gaitasunak batzen dituzte, banaka egingo ez lituzketen erronkei aurre egiteko.

Elkartasuna eta herritarren ekimena potentzial izugarriko aktiboa dira. Boluntariotzaren Euskal Kontseiluko lehendakaria den Jose Alberto Vicentek honela adierazten zuen Bherria sortu zenean: "Udalerrietako baliabiderik handiena herritarrak gara".

Ezaugarri honetan, lankidetzaz-prozesuen dimentsio ekonomikoaren inguruko estrategiak aztertzen ditugu. Besteak beste, honako hauek hausnartuko ditugu: komunitatea baliabide-iturri gisa, diru-laguntzekin loturiko prozedurak berrikusteko beharra, "aurrekontu parte-hartzaileen" potentziala eta, geruza digitalean oinarrituta, sarean finantzatzea ahalbidetzen duten beste ekimen batzuetara irekitzea.

## DIRU-LAGUNTZEN BIDEZ FINANTZATZEA

Erakundeek herritarren ekimena eta ekintza solidarioa indartzeko gehien erabiltzen dituzten finantzaketa-bideetako bat dira diru-laguntzak. Deialdien eta ebaluazio-irizpideen bidez, bultzatu nahi den gizarte-motaren inguruko asmo-adierazpena islatzen da.

*Zure proiektuan, nola erabiltzen duzue finantzaketa-bide hori herritarren ekimena indartzeko?*

## AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK ETA AKTIBATZAILEAK

Parte hartzeko aurrekontuak gure udalerrietan presentzia gehien hartu duten ekimenetako bat dira. Erreminta horrek izugarriko potentziala du, betiere konfiantza indartzeko eta herritarren lankidetzaz aktibatzeak aukera bilakatzen bada.

*Zure proiektuan, zenbateraino lortu duzue lankidetzaz aktibatzea parte hartzeko aurrekontuen bidez?*

## SINERGIEN ETA KONEXIOEN BALIOA

Baliabideekiko begirada arduratsua eta iraunkorra aktibatu beharra daukagu; hori dela-eta, bereziki erreparatu behar diegu jada martxan diren eta lagundu ditzakegun ekimenei edota lankidetzaz proiektuak aktibatzeari, ezagutzak eta ahalabideak konbinatzean inpaktu handiagoa sortzeko.

*Zure proiektuan, zer-nolako ekintzak burutzen dituzue arlo edo sail desberdinen artean lankidetzaz aritzeko?*

## BATERAKO FINANTZAKETA ETA MIKROFINANTZAKETA

Mikromezenasgo zibikoko plataformei esker, proiektu eta ekimenen inguruko komunitateak errazago sortzen ari dira. Administrazioek herritarren estrategia horietan parte hartzeak, berriz, aukera ugari ematen ditu elkarrekin erabakiak hartzen laguntzeko.


*Zure proiektuan, zer-nolako estrategia digitalak ezartzen ari zarete komunitatearekin lankidetzaz aritzeko?*

## TIP-AK

Ezaugarri hau hobeto ulertzen eta garatzen lagundu ahal duten erreferentziak eta/edo baliabideak.

### GALDAKAOKO ESPERIENTZIA

Galdakaoko Udalak parte hartzeko aurrekontuen 4 edizio burutu zituen 2019 eta 2023 urte artean, eta horietako bakoitzean milioi bat euroko inbertsioa egin zuen. Denbora horretan, hobekuntzak egin dira erronka berriei erantzuteko; hala nola, proposamenen kalitatea lehenestea, udalerrira aurrekontu espezifikoei zuzendutako aurrekontuaren banaketa inbertsioen eta zerbitzuen artean definitzea eta [erabaki.galdakao.eus](http://erabaki.galdakao.eus) plataforma erabiltzea. Bi lezio ikasi ditugu: era horretako prozesu bat abian jarri aurreko konpromisoak betetzea eta babes politikoa eta udaleko sail guztiena lortzea.



### DECIDE.MADRID

Decide.Madrid plataformak herritarren konpromiso progresiboa lortu nahi du, esperientzia "ludifikatuaren" bidez, joko-elementu eta sariekin lortzeko moduko helburuak landuz.

[journal.platoniq.net/es/wilder-journal-2/learnings/decide-madrid](http://journal.platoniq.net/es/wilder-journal-2/learnings/decide-madrid)

### CROWDVOYAGE GOTE + DECIDIM PLATAFORMAN

Adibide honek Decidim.Barcelonan herritarren proposamenetako sustatzaileek egindako lana nabarmentzen du; gainera, inpaktu hori Goteo.org plataforman parte hartu duten beste komunitate eta talde batzuetara estrapola daiteke. Plataformen arteko elkareragingarritasunak parte hartzea handitu dela erakutsi du eta gehiago prestatuta dauden komunitateak sortu direla, inpaktu eta gogobetetze handiagoarekin.

Ekimen horietarako baliabideak borondatezko lanaren mende daude batik bat, eta laguntza ekonomiko eta giza laguntzaren behar espezifikoak sortzen dituzte. Horrela, eztabaida bat sortzen da: herritarren ekimen bat aurrera eramateko lana ordaindu behar da ala ez?

[www.plaestel.org/es/naves-do-metrosidero-3](http://www.plaestel.org/es/naves-do-metrosidero-3)

### PARTE HARTZEKO AURREKONTUAK ETA MATCHFUNDING

Parte hartzeko aurrekontuen eta *matchfunding*-aren bidez, milaka pertsonak aukera izan dute baliabide publikoak zertara bideratu behar diren erabakitze eta ekimen sozialak errealitate egiteko.

[journal.platoniq.net/es/wilder-journal-1/deep-dives/democratic-funding](http://journal.platoniq.net/es/wilder-journal-1/deep-dives/democratic-funding)



### TRUKE-SAREA

Truke Sarea Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala auzoetan baliabideak trukatzeko funtsezko ekimen gisa sortu da. Plataforma elkarteentzako aukera litzateke, beren proiektuak indartzeko eta garapen komunitarioa sustatzeko.

Ekimen honek gaitasuna izan behar du elkarri laguntzeko sare bat ezartzeko, hainbat erakunderen arteko lotura sendoekin, espazio eta baliabideen behar materialek abiatuta, ezagutzak eta esperientziak partekatze aldera garapen komunitarioaren aldetik. Horrela, sare hori apartekoa litzateke elkarrekotasunaren ikuspegitik. Ez da, besterik gabe, alde bakarreko trukea, sinergia bat baizik, eta hor elkarre bakoitza onuradun eta laguntzaile bilakatzen da zati berdinetan.

Autonomia eta ahalduzko funtsezkoak dira, eta, horiei esker, erakundeek beren garapena zuzendu eta erantzukizun individuala sustatu dezakete, guztion onurarako.

[redintercambio.wikitoki.org](http://redintercambio.wikitoki.org)

